



GRAN LOGIA DE ESPAÑA

1889

GRANDE ORIENTE ESPAÑOL

De Masones Antiguos, Libres y Aceptados



### ESPAINAKO ERAKUNDEEI GUTUN IREKIA

2017ko ekainaren 24an, mundu luze-zabaleko masoiok gure hirugarren urteurrena ospatuko dugu. **Orain dela 300 urte, Masoneriak zenbait printzipio errazetan oinarritutako eredu ezin hobe bat amestu zuen gizateriarentzat:** pentsatzeko eskubidea eta onartzeko beharra. Gizaki guztiek **euren burua ezagutu eta eraikitzeko abenturan** behar duten kontzientzia-askatasuna, **pentsamendu-askatasuna;** eta gainontzekoekiko **tolerantzia anaikorra,** gizakien duintasunarekiko errespetua sinesmenetatik, **gizarte-klaseetatik, arrazetatik, ideietatik edo nazioetatik haratago.** Zoritxarrez, mundua oso urrun dago orain dela 300 urte finkatutako ideal erraz horiek onartzetik. **Erljio-fundamentalismo** guztiek, **totalitarismo politiko** guztiek, munduan ezagututako pentsamendu bakar guztiek jazarri dute **munduko 23 herritan oso mehatxatuta** dagoen erakunde horren idealak.

Espainian **erakunde demokratikoen babesa eta laguntza** sentitzen dugu, eta Espainiako Logia handitik erakunde guztiak —bai Gorteak bai udal txikiena ere—, eta ohitura oneko pertsona guztiak gonbidatu nahi ditugu **hirugarren urteurrenaren ospakizun** orokorrarekin bat egitera eta erakunde-adierazpen labur eta erraz bat gain hartzera.

**“Pentsamendu askearen eta gizaki guztien arteko tolerantzia anaikorraren inguruan dituen idealen hirugarren urteurrena ospatuko du Masoneriak 2017. urtean. Erakunde-adierazpen honen bidez, bat egiten dugu printzipio horien zintzotasunaren onarpenarekin, eta XXI. mendean ikusi nahiko genuke amaitu egin dela Masoneriaren alde edo horren ideia guztiz demokratikoen alde egitegatik oraindik jazarpena, zigorrak eta kondena penalak jasaten dituztenen, erbesteratzen dituztenen edo hiltzen dituztenen sufrimendua”.**

Óscar de Alfonso Ortega

Espainako Logia Handiaren Maisu Handia- Espainako Ekialde Handia